

Euskera:

Amadeu Casellas Ramon, 40 urteko anarkista katalana, 1986tik espetxeratua odolrik gabeko delituengatik, Quatre Caminseko espetxean giltzapetuta, 2008ko ekainaren 23tik gose greba mugagabe bat burutzen ari da bere askapena aldarrikatzeko. Bitarte honetan 30 kilo galdu ditu, Terrassako hospitaleko presoentzako sailera lekualdatu dute eta gose grebarekin aurrera jarraitzeko gogo irmoa adierazi du. Orain gutxi Amadeuk glukosa hartzeari utzi egin dio, haren osasunaren gainbehera azkartuko duen erabakia.

Amadeu Casellasek egun indarrean dagoen Kode Penalak (1995koa, 2003an erreformatua) baldintzapeko askatasuna eskuratzeko aurreikusten dituen hiru baldintzetatik bi nagusienak betetzen ditu:

- zigorraren 3/4ak beteta izatea.
- jarrera egokia azaltzea.

Gainera Amadeuk bergizarteratze prozesuan lagunduko dioten hainbat senide eta lagun ezezik, lan eskeintza bat dauka.

Amadeuk betetzen ez duen eskakizun bakarra 3. graduan sailkatua egotea da –espetxetik, Espetxe Zaintzarako Epaitegitik eta Entzutegi Probintzialesetik birritan ukatu diotena, hark aspaldian burututako ihesaldiak aitzakitzat hartuta. Hau lortzekotan haren askapena asko azkartuko litzateke. Gainera Manresako 2. Epaitegiak bere zigorraren bateratzea eta behinbehineko askapena ukatu dizkio Amadeuri, 1988 urtean bateratu zizkietela argudiatuz.

Adierazitako guztiagatik, eta Amadeuren bizitzak pairatzen duen arriskuarengatik, hari behinbehineko askatasuna –edo bestela “prisión atenuada” delakoa- emateko beharrezko prozesuei hasiera lehen baio lehen emateko eskatzen dugu.

2008ko irailaren 1ean